



Lanaldi partzialeko langilea zara eta langabezia prestazioa kobratu duzu osasun krisian?

Alarma-egoeran, SEPEk diskriminatu egin ditu kontratu partzialak dituzten langileak

COVID-19ak eragindako osasun krisiaren ondoriozko ezohiko neurriak aplikatzean, **SEPEk diskriminatu egin ditu** aldi berean enpresa batentzat baino gehiagorentzat lan egiten zuten **kontratu partzialak zituzten langileak**.

Diskriminazio horrek eragina izan du langile partzialetan, **kontratu bat baino gehiago izanik, enpresetako batean aldi baterako erregulazio baten eraginpean zeudelako**. Egoera horietan, SEPEk murrizketa bikoitza egin du. Hau da, partzialtasunagatik jada murrizta zen kotizazio-oinarriaz gain, koefiziente murriztailea aplikatzen zion, mantendutako lanaldiaren ehunekoaren arabera.

Gogoan izan behar da diskriminazio-praktika horrek emakumeei eragiten diela gehienbat; izan ere, lanaldi partzialeko kontratuen %75 emakumeek dituzte. Partzialtasun hori, gainera, inposatua da kasuen %72tan.

Era berean, garrantzitsua da gogoratzea Europako Justizia Auzitegiak askotan kondenatu duela Espainiako Erresuma lanaldi partzialeko langileak diskriminatzeagatik.

Langabezia kobratzeko araudi berria, COVID-19ak eragindako aldi baterako erregulazioek kaltetutako langile partzialentzako

30/2020 Errege Lege Dekretua urriaren 1ean indarrean sartu zen; bertan ezarritakoaren arabera, COVID-19agatik (ezinbesteko arrazoia edo arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolamenduzkoak edo ekoizpenekoak) aldi baterako erregulazioen eraginpean dauden langile partzial guztiek, osorik kobratuko dute aldi baterako erregulazioak etendako edo murriztutako lanaldiari dagokion langabezia-prestazioa, eta ez zaie aplikatuko koefiziente murriztailerik.

Gainera, osasun krisia hasi zenetik **langabezia-prestazioaren murrizketa jasan duten langileek eskubidea izango dute SEPEren konpentsazioa jasotzeko**. Horretarako, eskabidea aurkeztu beharko da SEPEn, **2021eko ekainaren 30a baino lehen**.

Bide onean, baina ez da nahikoa

Gure ustez, neurri hori ez da nahikoa, ez baitu ezabatzen langabezia-prestazioak kobratzean dagoen diskriminazioa, COVID-19aren ondoriozko aldi baterako erregulazioek kaltetu ez dituzten langileen kasuan.

Irizpide hori, berandu baino lehen, langabeziako eta Gizarte Segurantzako prestazio guztietara zabaltzea eskatzen dugu.

#BizitzakErdigunera #LaVidaLoPrimero